

azpeitian zer?

118. zenbakia

udal aldizkaria

2009ko ekaina



Zuhurtzian
oinarritutako
aurrekontuak

%18,76ko jaitsiera onartu du Udalak
2009ko aurrekontuetan

ale honetan

zer?



- 3 Inkesta
- 8 Udal aurrekontuak onartuta
- 4 Proposamenak, kexak...
- 10 Ostiral arratsaldeetako azoka
- 5 Komun publiko berriak martxan
- 12 Motxean
- 6 Ekintzaile berriekin berriketan
- 14 Azpeitia Dantzan

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
 Egilea: Pentsa bulegoa
 Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Ale kopurua: 7.000
 L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
 arren, zure etxean jaso
 dezakezu Azpeitian Zer?
 aldizkari hau posta bidez.
 Egin eskaria 943 15 71 85
 (Alkatetza) telefonon.

Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitetza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko /Gazte		Museoa	943 81 24 48		
Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 61			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 71 94			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

inkesta zer dio kaleak?

Auzoetako
festak arrakastatsuak
al dira?



Saioa Imaz

“Sanjuandegiko jaietan gero eta jende gehiago ibiltzen da, urtetik urtera hobetuz doaz. Uste dut horren gakoa jaien antolakuntzan dagoela: Sanjuandegin festa batzorde sendo bat sortu da, adin eta kolore guztietako jendearekin, eta lanerako gogo handiz ari dira guztiak. Horrek ilusioa piztu du bai jaien antolakuntzan eta baita parte hartzean ere. Egitarau zabala antolatzea lortu dute, eta horrek gisa guztietako jendea erakarri du”.



Patxi Agote

“Ni Landetakoa naiz eta han behintzat dena galdu da. Garai batean bai, San Eloi jaiak oso jendetsuak izaten ziren, hiru egun irauten zuten, eta denetarik ibiltzen zen, gazteak: helduak... denetarik. Orain ordea, egun bakarrean izaten da festa, eta bertako bakan batzuk bakarrik biltzen gara. Nik uste dut gazteen inplikazioa galdu dela: auzoko jaiak antolatzen ez dira inplikatzeko, eta horren ondorioz eskatu egiten dira festak”.



Mari Jose Gorrotxategi

“Garai batekin alderatuz, asko jaitsi dira Urrestillako jaiak, baina azken urteetan berriro ere indartzen ari direla esango nuke. Bertakoak ibiltzen gara asko, eta oso giro ederra egoten da. Urrestildarrok antolatzen ditugu festak, eta merezi du lan hori hartzeak, gero gehiago gozatzen duzulako. Jendearen inplikazioak indartzen ditu festak nire ustez, arbola sartzearen kontu horrek eta... guk behintzat asko gozatzen dugu”.



Garbiñe Odriozola

“Uste dut jaiak estankatuta daudela azken urteetan: bertiko jendea ibiltzen da. Urrestillan, San Juan bezperan eta San Juan egunean kanpotik jende asko etortzen da, baina bestela bertakoak ibiltzen gara. Berbenaren kontua galdu dela esango nuke nik, kalean dantza egite hori galdu da, baina ez auzoetan bakarrik, orokorrean baizik. Hortik aurrera kalean eta tabernetan jende ugari ibiltzen da”.

Proposamenak, kexak...



Garmendiko parkea

Garmendiko parkeak, Institutotik gertu dagoenak, berritu bat beharko luke (garbitasun sakon bat, pintatu eta segurtasuna bermatzea). Gainera, bertan eskutitzen buzoi hori hoietako bat kendu beharrean dago, erdoilduta eta zulatuta, oso egora txarrean baitago. Espaloi berriarekin batera aldaketa hau beharrezkoa ikusten dugu.

Jasone Etxabe
Maria Isabel Alberdiguren

Wifia doan

Azpeitian wifi sarea doan jartzea proposatzen dut, gazteek Internetera sarbidea dohainik esan dezaten eta euren gurasoek aparteko gasturik egin ez dezaten.

Webgunera sarrera

Mesedez Azpeitiko webgunean informazioa euskaraz jarri, eta ez erderaz. Hau Azpeitia da, eta ez Murtzia.

Igone Urbietia

Festak direla eta

Inauterietako jaietan gertatutakoa salatzeraz nator, hurrengoetan gertatu ez dadin. Kontua da aurtengo umeen mozorro egunean, desfilean musikarik ez jartzea erabaki zuela Udalak. Zergatik? Ez dakit. Baina, horren ondorioz, desfilean atera ginen ume eta gurasoek oso sentsazio arraroa izan genuen, ez musika eta ez ezer, batera eta bestera pasieran. Ez dut uste musika jartzea hainbeste kostatzen denik. Banda edo txaranga jartzea ondo dago, baina kontuan hartu behar da horiek jotzen duten musika gertu daudenek soilik entzuten dutela. Hor-taz, hurrengorako megafonia orokorra jartzea eskatzen dut, desfilea ez ezik kaleko giroa nabarmen piztu eta bizitzen duelako, eta azken finean hori delako festen izpiritua.

Herritar bat

Madalena auzoko 1 zenbakia

Madalena auzoko 1 zenbakidun etxearen fatxadaren ertzak noiz arte iraungo du horrela? Larria izango litzateke zerbait gertatu beharra izatea konpontzeko zerbait egiteko. Zerbait egingo duzelakoan, zuen erantzunaren zain gelditzen naiz.

Pedro

Enparan dorretxearen atzekaldean

Zergatik uzten zaie herritar partikularrei leku publikoetan monumentuak jartzen? Enparan dorretxearen atzean hala jarri dute batzuk lagun batzuren omenez. Jende asko ibiltzen da hor, eta umeak galdezka aritzen dira, eta guk ez dakigu zer erantzun.

Iberotarren auzoko bizilagun bat.

Zapoko Txoko

Alkate jauna: eskatuko genizuke igandeetan Zapo Txoko irekita edukitzea, edo bestela astelehenetan. Hobe igandeetan bada, Azpeitian ez baitugu joateko beste tokirik.


Konpostajerako kaxa gehiago

Konpostajeko kaxa gehiago jartzea nahiko genuke, konposta azkarrago egiteko modua izateko.

Informazio gehiago

Eskatuko genizuke udaletxeko harreran egoten denak Azpeitiko ekintzei buruz informazio gehiago izatea. Izan ere, aurtengo udalekuetara ezin izango dut joan, horko langile batek ez baitzekien nora joan behar nuen apuntatzera. Milesker gutuna irakurtzeagatik.

Azpeitiko herritarrek



www.azpeitia.net



Sartu zaitez www.azpeitia.net udal webgunean

Tramiteak eta ordainketak etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.

Udal albisteak uneoro ezagutzeko.

Zure kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzeko.

Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.


Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezka on-line erantzungo ditu.

Inmigratio plana: Udala garatzen ari den planaren berri izan eta bertan parte hartzeko aukera izango duzu.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.



Perez Arregiko komuna martxan

Perez Arregi plazako komun publikoa (erdi kalearen amaierako kale kantoiak dagoena) martxan da jada, eta Udalak jakin duenez, harrera ona izan du, bai asteburuetan, eta baita aste egunetan ere.

Erabilera arauak errespetatu eta komuna txukun mantentzeko ahalegina egiteko eskatu nahi die Udalak herritarrei. Zerbitzua benetan egokia eta herritar guztientzat erabilgarria izateko garbitasun eta higie arauak errespetatzea ezinbestekoa dela uste du, eta horregatik, ahalik eta egokien zaintzeko eskatu nahi die erabiltzaileei. Horrez gain, komunaren egitura bera ere zaintzeko eskatzen die azpeitiarrei, behar ez den kolperik ez emateko, ahalik eta gehien iraun dezan.

Komun berria automatikoa da, erabili ondoren bera bakarrik garbitzen den horietakoa. Barrura sartutakoan ahots batek ematen ditu erabilpenaren inguruko azalpenak, eta 15 minutuko denbora uzten du gehienez. Komun nagusiaz gain, gizonezkoentzat pixatokiak ere baditu.

Plazako betiko komunez aparte, herrian ipintzen den gisa honetako lehen komuna Perez Arregi plazakoa, baina azkena ez izatea espero du Udalak. Herriko auzo nagusi eta bestelako guneeetan ere komun publikoak jartzeko asmoa du, eta horretan ahaleginduko da. Komun automatiko horietako bakoitzak 60.000 euro balio du, montatzeko kostuez gain.

Behin betiko pasabidea



Goiko kalen aldi baterako jarri zuten oinezkoen pasabidea behin betiko jarri dute. Probako esperientzia ona izan dela ikusi du Udaltzaingoak, eta zutabe finkoak jarri ditu.

Nolakoa zen Azpeitia?

Galdera horri erantzun nahi dio Azpeitiko Argazki Elkarteak. Azpeitia eta inguruak islatzen dituen argazki zaharrak bildu nahi ditu,



Nikolas Oteiza "Kaito" - k egindako argazkia 1952.ean eta Eskarne Urbieta Arrutik utzita.



Argazkilari ezezagun batek egindako argazkia eta Eskarne Urbieta Arrutik utzita.

horretarako zuen laguntza behar du, ordea. Etxean dituzuen argazki bildumetan begiratu besterik ez duzue egin behar: dituzuen argazki zahar zein berriak onartuko dira, eta baita negatiboak eta klitxeak ere.

Udaleko Kultura sailean jasoko dituzte argazkiak, eta bertan klasifikatu. Argazki guztiak behar bezala zainduko dira, eta bere jabeari itzuliko zaizkio. Bulegoa 09:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, udaletxeko hirugarren solairuan.

Hartu ezazu parte herriko kultur ondarea berreskuratzen. Azpeitiaren historiaren zati bat berreskuratzen ere lagunduko duzu.

Ekintzaile, ekinez

Iraurgi Lantzen garapen agentziak ekintzaile berriei zuzendutako astea egin berri du. Ekintzaile horietako hirurekin izan da *Azpeitian zer?*, euren esperientzia, kezka eta asmoez hitz egiteko.



“Enpresaburu ekintzailea”. Hori entzunda unibertsitate tituludun gazte berritzaile eta aditua irudikatzea da normalena. Ez dauka zertan horrela izan, ordea. Amaia Irazusta bi umeren ama da, Edurne Saenz de Samaniego ere bai, eta Mari Jose Aizpuruk urteak pasatu ditu ostalaritza eta tailerrean lanean. Eta hirurak dira enpresari ekintzaileak. Hirurek sortu dutelako enpresa bat ideia berri eta berritzailetik abiatuta. Hirurak abiatu direlako hutsetik euren negozioa martxan jartzeko. Eta hirurek eskaintzen dutelako zerbait ezberdina.

Mari Jose Aizpuru 'Etxaun kutixi' denda



mari Jose Aizpuruk orain hiru urte ekin zion enpresari bideari. Beti tabernan lanean, gehiago ezin zuela konturatu zen. Ostalaritzaren ordutegiak ito zuela pentsatuta, tailerrean probatzera erabaki zuen orduan, baina han ere lanak izan zituen. Gehienez 3-4 hilabeteko kontratuak lortzen zituen, eta gainera tailerrean

giro tristea topatzen zuen. “Zerbait egin behar nuela argi ikusi, eta aukerak aztertzen hasi nintzen orduan. Delikatessen-en mundua asko gustatzen zitzaidan eta hortik jotzea erabaki nuen”.

“Norberaren proiektua egin eta hazten ari dela ikustea gauza handia da”

Pentsatu eta egin: Iraurgi Lantzen Sustapen Agentziara jo zuen aholku eske, eta azkenean pausoa ematea erabaki zuen. Halaxe zabaldu zuen *Etxaun Kutixi*. “Delikatessen denda bat da, baina kafetegia ere bai... zaila da definitzen!”. Barrez onartu du Mari Jose Aizpuruk. Izan ere, hasieran izan zuen ideiatik proiektu ezberdina atera zaiola dio. Bietatik du zerbait: kutixien denda da, batetik, baina kutixi horiek bertan probatzeko modua ere eskaintzen du. “Zerbait berria eta ezberdina da, eta jende askori kostatu egiten zaio barrura sartzea, baina gero eta gehiago dira probatu eta errepikatzen dutenak”.

Edurne Saenz de Samaniego

‘Makibar, frutak eta abar’ denda



edurne Saenz de Samaniegori bestela iritsi zitzaion *Makibar Frutak eta abar* denda zabaltzeko aukera. Arabar Errioxakoa da, ardandegi familia batekoa, kimikan lizentziatu zen eta enologia ikasketak egin. “Urrestillako batekin egin nuen topo, orduan, ordea, elkar ondo ulertu genuen, eta azkenean Azpeitin

amaitu nuen, ezkontuta, bertan zerbait aurkituko nuenaren itxaropenarekin”. Ardoaren munduarekin lotutako kontuak ditu gustuko Saenz de Samaniengok, baina arlo horretan aukera gutxi eskaintzen zizkion Azpeitiak. “Iraurgi Lantzenera zenbat buelta egin ote nituen... Hau egin daiteke, hori, bestea... baina zenbakiek ezezkoa esaten zidaten beti”.

“Buruan eduki eta saiatu gabe ezin nuen gelditu”

Horretan zebilela euren etxepeko fruta denda alokagai zegoela ikusi zuen eta egun batetik bestera negozio huraxe hartzea erabaki zuen. Baina ezberdinduta. Izan ere, izenak dion bezala, fruta denda baino gehiago da Makibar frutak eta abar. Ardo ezberdinak aurki ditzakezu bertan, eta ardo horiek jatetxe, taberna eta elkar teetara banatzeaz ere aduratsen da Saenz de Samaniego.

Amaia Irazusta

‘Language bridge solutions S.L.’ eta ‘Urkizu’



amaia Irazusta “lan merkatuaren injustiziak” bultzatu zuen enpresa propioa bila. Bederatzi urtez enpresa batean administrari auxiliar mailan eduki zuten lanean “goi karguen lanak egin arren”. Gutxi baloratzen zutela ikusi, eta azkenean lana uztea erabaki zuen. Beste zeregin batzuetan aritu

zen aita gaixotu zitzaion arte, eta hura zaintzen aritu zen hiru urtez. Bere ahizpa haurdun gelditu eta lanetik bota zutenean erabaki zuten zerbait egitea: “Amatasuna eta lana uztartuko zituen zerbait egin nahi genuen”. Ahizpa Ingalaterran bizi da, eta hori aprobetxatuta Language bridge solutions S.L. (www.lbsolutions.es) sortu zuten. Enpresei han promozionatzeko laguntzen diete, eta telemarketing zerbitzuak eskaintzen.

“Inbertsio asko egin gabe pozik bizi daitekeela erakusten dugu”

Proiektu hori hazten ari den unean bigarrenari ekin dio, gainera, Amaia Irazustak. Bere senarrarekin batera, Berrosueta Barrena baserrian inbernaderoak jarri, eta jaki ekologikoak ekoizti eta internet bidez saltzeari ekin dio. www.urkizu.es webgune bidez.

ausartak izan direla badakite. “Erabakia hartzea izaten da zailena. Hortik aurrera ilusioz eta indarrez heltzen diozu bideari”. Hala dio Edurne Saenz de Samaniegok. Hirurak bat datoz Iraurgi Lantzenek bide horretan laguntzen duela, “batik bat errealitatera mugatzeko, eta benetan dituzun aukerak ezagutarazteko”, esan du Mari Jose Aizpuruk. Baina administrazioen jarrerarekin kexu dira. “Lagundu egiten al dute? Kontu bat edo bestea egitera joan eta beti oztopoak jartzen dizkizue, tramiteak, hau, hori bestea... zuri exijentzia guztiak eskatzen dizkizute, eta konturatzen zara ondokoari ez dizkiotela eskatzen”. Argi mintzo da Amaia Irazusta.

Hartutako erabakiarekin harro eta gustura daude. “Norberaren proiektua egiten eta hazten ari dela ikustea gauza handia da, eta lan asko ematen badu ere, zeuk egindako zerbait izate

horrek ematen dizu satisfazioa”, dio Aizpuruk. Proiektu horien balioa azpimarratzen du, berriz, Irazustak: “Gure kasuan, diruari baino familiarri eta ama izateari ematen diogu balioa, eta elkartasunari ere bai”, irabazien zati bat Afrikara bideratzekotan dira.

Argi dute pertsonak direla garrantzitsuenak. Gisa honetako proiektu ekintzaileak aurrera ateratzeko, %85a pertsonaren esku dagoela diote, %10a ideien esku, eta falta den %5a zortearren esku. Etorkizunean nola joango zaien jakiterik ez dago, baina egindakoaz eta egiten ari direnaz ez dute zalantzarik. “Ideia izanez gero, aurrera egin”, argi du Mari Jose Aizpuruk. “Saiatu gabe ez dadila inor gelditu”, gaineratu du Edurne Saenz de Samaniegok. “Inbertsio txiki batekin proiektua aurrera atera eta pozik bizi daitekeelako”, amaitu du Amaia Irazustak. Ekintzaile izatera animatzeko hiru arrazoi emanda joan da bakoitza bere lanera.

Udalak onartu ditu 2009ko aurrekontuak, %18,76ko jaitsierarekin

Gastuak murriztu ditu, baina gizarte zerbitzuetan eta inbertsioetan ahalegin berezia egin du

2 2.010.921,24 euro. Aurrekontu orokor hori izango du Azpeitiko Udalak 2009an. Iazko urte amaierako aurrekontuak jasotzen zuen kopurua baino %18,76 gutxiago izango da, egoera ekonomikoaren ondorioz diru sarrera gutxiago izango dituela aurreikusi baitu Udalak, eta horregatik murriztu ditu gastuak.

Kopuru orokor horretatik 18.454.666,24 euro dira Udalaren aurrekontu propioak (gainerakoa Azpeitia Lantzen, Euskara Patronatua eta Udal Kirol Patronatuarentzat dira), eta kopuru horretan egin dira murrizketa nagusienak. Hala, sail bakoitzak hestutu behar izan du gerrikoa, eta dagokion diru kopuru hori baino gehiago ez gastatzeko ahalegina egin beharko du. Hala adierazi du Julian Eizmendi alkateak: "Bakoitzari dagokion diruarekin moldatu beharko dugu, eta zuhurtziaz jokatu". Hirigintza eta Ingurumen sailean egin da murrizketa handiena, %62,35ekoa, alkatetzan %40,28 jaitsi da, iaz aparteko gastu bat sail horretan sartu zelako, Industria, merkataritza eta turismoan %4,32 jaitsi dira, festetan %4,05, eta Euskara eta Kulturaren, %3,24.

Egoera ekonomikoaren zailtasunak zailtasun, ordea, gizarte zerbitzuetan ahalegin berezia egitea erabaki du Udalak, eta %12,19 igo du sail horren partida. Izan ere, krisi egoera dela eta areagotu egin dira herritarren premiak eta larrialdi

eskariak, eta horren aurrean gizarte politika sendotzea eta behar bezala erantzutea erabaki du Udalak.

Nahiz eta diru sarrera gutxiago izan, (Estatuko laguntzak, 2008tik txertatutako inbertsioak, eta hitzarmenak kontuan hartuta), inbertsioetan ere ahalegin berezia

egitea erabaki du Udalak: 9.725.269,96 eurokoa. Diru hori urbanizazioak (Sanjuandei eta Garmendi), San Agustín atzeko parkea, San Martín egoitzaren 4. solairua eta lorategia, Urrestillako haurtzaindegia, Nuarbeko frontoia, Soreasuko lanak eta beste hainbat obra txiki egiteko erabiliko dira.

1. AURREKONTU OROKORRA ETA ENTITATE BAKOITZAREN A.

AURREKONTU OROKORRA	22.010.921,24
UDALA (aurrekontu propioa)	18.454.666,24
EUSKARA PATRONATUA	701.922,92
UDAL KIROL PATRONATUA	974.522,60
AZPEITIA LANTZEN, S.A.	2.772.455,00

2. UDALEKO GASTUEN AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA

		2008ko bukaerakoarekin konparaketa
Ogasuna eta Kontuak	1.618.137,60	7,12%
Hirigintza eta ingurumena	2.654.700,00	-62,35%
Hezikuntza eta Gazteria	729.792,20	-4,06%
Kultura eta euskara	952.452,92	-3,24%
Kirolak	759.022,60	1,22%
Gizarte-kintza	1.057.470,66	12,19%
Langileria eta antolakuntza	5.423.384,75	0,17%
Festak	597.360,00	-4,05%
Zerbitzu orokorrak eta baserriak	4.100.900,00	3,95%
Alkatetza	336.000,00	-40,28%
Industria, merkataritza eta turismoa	153.445,51	-4,32%
Parekidetasuna	72.000,00	0,00%
GUZTIRA	18.454.666,24	-18,76%

3. 2008KO AURREKONTUAREKIN ALDERATUZ

2008ko bukaerako aurrekontua	22.714.868,55
2009ko jeitsiera 2008koarekin alderatuz	-18,76%

4. INBERTSIOAK 2009an

INBERTSIOAK aurrekontu honetan	2.967.612,90
Soreasuko urbanizazioa	751.013,29
2008tik txertatutako inbertsioak	3.051.250,78
Herri mailako inbertsioetarako Estatu Fondoa	2.487.392,99
Adostutako kreditu aldatetan inbertsioak	468.000,00
GUZTIRA	9.725.269,96

Adostasuna lortzen saiatu arren, alkatea ere ez da izango liberatuta

Alkatearen soldata kentzeko oposizioak hartutako erabakia salatu dute Julian Eizmendi alkateak eta bere udal gobernu kideek. Hona gaiaren inguruan egindako balorazioa:



EUDELen arabera, 2.000 biztanletik gorako udalerriek behar lukete alkatea liberatuta. Eta herriak daude, txikiagoak izan da ere, alkatea liberatuta dutenak.

2. Orain arte ni bakarrik nengoen liberatuta eta beste biak negoziatzen saiatu naiz. Aurreko alkateak kobratzen zuen soldata bera kobratzen dut, hilean 2.000 euro neto. Ordainsari hori ere kendu egin didate, eta edozein herritarrek bezala diru sarrerak behar ditudanez, lehengo lanpostura itzuli beharko dut.

3. Guk uste dugu politikan gutxiene-ko batzuk errespetatu egin behar direla, eta horrelako jarrerak ez dutela zentzurik. Azpeitian (14.375 biztanle) gertatu dena ez da beste inon gertatu. Urrutiago joan gabe, Zestean (3.311 biztanle), EAE-ANVk minorian gobernatuta, inori ez zaio bururatu alkatearen ordainsaria kentzea. Ezta ezker aber-tzaleak gutxiengoan gobernatzen duen beste inon ere (halanola Antzuolan, Arrasaten, Bergaran, Hernanin, Pasaian, Urretxun, edo Zumaian) gehiengo duen oposizioari zaio bururatu liberatuen ordainsariak kentzea.

4. Alkateak herriarentzat eta herritar guztientzat egiten du lan, eta liberatuta egon gabe ere, nik ahalegin guztiak egingo ditut alkate lanak ahalik eta ondoen betetzen. Diputazioko lanak eta alkate eginbeharrak uztartzen saiatuko naiz. Azpeitiar guztion alde, azpeitiar guztion onerako, jarraituko dut lanean”.

“Aurrekontuak adosteko prozesua martxoaren aurreneko hamabostaldian abiatu genuen, zirriborroak batzorde ezberdinetatik pasatu genituen, eta oposizioko hiru alderdiek euren ekarpenak egin zituzten.

Oposizioak egindako ekarpen guztiak sartu ditugu, nahiz eta batzurekin bat ez etorri. Jarrera hori izan dugu, koiuntura ekonomiko eta politiko honetan adostasuna lehenetsi dugulako. Nahiago izan dugu guztien adostasunean oinarritutako aurrekontuak onartzea.

Desadostasuna liberatuen kontuarekin izan dugu, oposizioak liberaturik ez izatea

eskatu duelako. Ekainaren 4ko plenoan alkatetzak proposatutako aurrekontuei aurkeztu zion emendakin hori oposizioak, eta guk kontra bozkatu arren, aurrera atera zen, euren 9 botorekin.

Erabaki horren ondorioak:

1. Herria eta alkatetza liberaturik gabe gelditzen dira. Azpeitiko neurriko herri bati (14.375 biztanle), EUDELen arabera, gutxienez hiru liberatu tokatzen zaizkio (aurreko korporazioak 3,25 zituen). Azpeitiko Udalak, udalak demokratikoak direnetik (30 urte), beti izan ditu liberatuak. Eta orain hamar urtez geroztik, hiru gutxienez.

Asteburu atariko azoka

Ostiral arratsaldero merkatua egiten hasi dira baserritarrak, eta harrera “oso ona” izan du.



“Gustura gaude, jendeak, etorri ez ezik, erosi ere egin baitu, eta hori da guk nahi duguna”. Hala mintzo Pedro Alberdi EHNEko teknikaria, ostiral arratsaldeetan azokara etortzen diren baserritarren izenean. Berdura plazan daude, bakoitza bere postuan, produktuak saldu eta erosleekin berriketan.

Ekainaren 5ean hasi ziren ostiral arratsaldetan azoka egiten. Ilusioz eta esperantzaz daude, “hasieran behintzat jende asko baitabil, eta ea horrela jarraitzen duen”. Herritarrek baserritarren produktuak erosteko aukera gehiago izatea nahi dute, astearte goizetan jende askok

azokara etortzerik ez duelako izaten. Baina hori bakarrik ez: bertako produktuak ekoizleengandik zuzenean erosteko aukera ere eskaini nahi dute, inongo bitartekaririk gabeko salerosketa sustatzeko.

Hasi bakarrik egin dira, baina aurreneko egunetan berrehun erosletik gora zenbatu dituzte, eta hori “oso kopuru ona” dela diote. Hamar bat baserritar dira bide berriari ekin diotenak. Barazkiak, bertako fruta eta fruitu lehorrak, gazta, ogia, mermelada, likoreak... produktu ezberdin ugari dituzte salgai, eta are gehiago izatea dute helburu, ahalik eta eskaintza zabalena eskaintzea.

Baserritarrak gustura daude aurreneko egunetan azokak izandako harrerarekin, ehunka erosle ibili baitira

Barazkiak, bertako fruta eta fruitu lehorrak, gazta, ogia... produktu ezberdin ugari dituzte salgai

Orain hilabete batzuk, Udalak baserriko produktuen merkaturatzeari buruzko azterketa bat jarri zuen martxan, EHNE sindikatuaren bidez. He-

rritarrekin eta baserritarrekin hitz egin zen azoka bultzatzeko modu egokiaren inguruan, eta aukera ezberdinen artean asteburuetan ere azoka egiteko proposamena agertu zen. Hortik abiatuta jarri dute martxan ekimena. Eguna aukeratzera zantalzak izan dituzte, erosle batzuk larunbat goiza nahiago zutelako, baina larunbat goizez Azkoi-

tian egiten da azoka, eta Azkoitiko baserritarrek ezingo lukete parte hartu Azpeitian, eta horien produkturik gabe azokak eskaintza apalagoa izango luke. Horrez gain, Azpeitiko eta Azkoitiko azokak osagarriak izan daitezkeela uste dute baserritarrek. Gainera, ez dute azoka “folklorikoa” egitearik nahi, produktua saltzea baizik, eta horretarako

ostiral arratsaldea egokiagoa delakoan daude.

Aurreneko egunetako harrera ikusita asmatu dutela dirudi. Ehunka lagunek egin ditu erosketak ostiral arratsaldean. Orain astetik atera erosle gehiago erakartzea izango da helburua. Erronkari aurre egiteko prest daude baserritarrek.

Saldu eta kontzientziatu

Merkatuaren bueltan, hileroko ekimen ezberdinak antolatuko dituzte, herritarren artean bertako produktuen aldeko kontzientzia sendotu asmoz



Ostiraletako azokak Udalaren “baber osoa” osoa du. Hala dio Iñaki Etxezarreta zinegotziak. Baserritarren produktuak merkaturatzeko bidea errazteaz gain, ostiraletako azokak kontzientziatu eta hezteko helburua ere baduela azaldu du, eta horregatik, hileroko, bestelako ekimenak ere antolatuko dira azokaren bueltan. Batzorde bat sortu dute baserritarren eta Udaleko ordezkarien artean, ekimen horiek antolatu eta azokaren jarraipena egiteko. Ekainaren 12a egin zen aurreneko eki-

men berezia: Ingurugiro Etxea Fundazioaren ekimenez, Slow Food mugimendua ezagutarazteko ekitaldia egin zen berduraz plaza. Mugimendu horrek bertako produktu iraunkor eta bidezkoen aldeko apostua egiten du.

Mugimendu horretako kide eta Donostiako Morgan jatetxeko sukalde buru Federico Pachak azokan bertan erositako produktuekin hainbat pintxo prestatu zituen, bertaratu zirenen jakin mina eta interesa piztuz. Euskal Txerriaren txori-

zo eta lukainarekin, eta azokan erositako gazta eta menbrilloarekin pintxoak eman zituen, aurrena dastatzeko, berak sukaldeko lanei ekiten zion bitartean. Bi pintxo prestatu zituen Pachak: pistoa, batetik, eta Idiazabal gazta eta baserriko arraultzekin egindakoa, bestetik. Bertaratuak arretaz jarraitu zituzten sukaldariaren argibideak, eta amaitutakoan asko izan ziren errezeta eskatu zutenak.

Fundazioko arduradunak gustura daude ekimenak izandako harrerarekin.

Bidaia geografikoa eta historikoa



Urola bailararako turismo eskaintza berria aurkeztu du Iraurgi Lantzenek

“Bost geldialdi historian zehar”. Izen horrekin bataiatu du Iraurgi Lantzenek Urola bailararako prestatu duen turismo eskaintza berria. Izan ere, 20 km barruan kokatuta dauden bost zentro turistiko bisitatuz, bidaia geografikoa ez ezik bidaia historikoa egitea ere proposatzen dute. Zumaiaiko Algorri, Zestoako Ekainberri, Loiolako Santutegia, Azpeitiko Trenaren Museoa eta Zumaiaiko Zuloaga museoa batzen ditu bidaia horrek, eta ari argumetal batean oinarrituta, bisitarien fideliazioa lortzea du helburu.

Zumaiaiko Algorri Natur Baliabideen Interpretazio Zentroan da aurreneko geltokia, lurraren historia harkaitzetan ezagutzeko. Bigarrena Zestoako Ekainberrin kokatu dute, prehistorian, bailarako lehen bizakien aztarnak ezagutzeko. Loiolako Santutegiak du hirugarren geltokia: XVI-XVII mendeak eta San Ignazioren bizia eta legatua ezagutzeko parada izango da bertan. Azpeitiko Trenaren museoan, berriz, XX. mende hasiera eta industrializazio garaia ezagutzeko aukera egongo da, Urolako trenaren bidez. Azkenik, Zuloagoa museoko geltokiak 98ko belaunaldia, artea, eta XX. mendean barneratzeko modua eskainiko du.

Merkatarientzat euskara katalogo berria



Fruta eta barazki dendei zuzendutako materiala prestatu du Euskara Patronatuak, besteak beste

Merkatariei euskaraz egiten lagundu eta sektore horretarako euskararen zerbitzua hobetzeko katalogoa berri egin du Euskara Patronatuak. Besteak beste, fruta eta barazki dendei zuzendutako materiala prestatu dute: frutak eta barazkiak identifikatzen dituen kartela eskainiko zaie dendariei eta horrekin batera prezioak jartzeko erabiltzen dituzten txartelak euskaratuta eta pertsonalizatuta eskainiko zaizkie euskarri digitalen.

Horrez gain, kartel mutuak, merkealdiak, faktura orriak, eraman agiriak, arlokako hiztegiak, eta ostalaritzako materiala ere eskainiko zaie dendariei, guztia doan. Teknologikoki ere laguntzak emango dituzte: merkatariei establezimenduen gestiorako prestatutako tresna informatikoa eskainiko zaie eta programa hori erabiltzen irakatsi.

Ana Mendizabal zinegotziak azaldu duenez, merkatariei euren jarduera euskaraz egiteko dituzten laguntza eta baliabideen berri eman nahi zaie katalogo berriarekin, eta bide batez, merkataritzan euskarak duen presentzia indartu.

Bostehun lagundik gora Udaleku irekietan



Gurasoekin bilerak egingo ditu Gazteria Sailak

5 42 haur eta gaztek eman du izena aurtengo Udaleku irekietan parte hartzeko. Uztailean hasiko diren ekintzak bi txandatan banatu ditu Gazteria Sailak, eta txanda bakoitzeko haurren gurasoekin bilerak egingo ditu aste honetan, ekin-tzen eta asmoen berri emateko. Bilerak guztiak Sindikatu Zahar-rean izango dira, 19:00etan euskaraz eta 20:00etan gazteleraz.

- Udan Txiki ekimenean 2005an jaiotako haurrek hartuko dute parte, eta bertako gurasoekin bilera ekainaren 22an izango da.
- Udan Koxkor ekimenean, berriz, 2003-2004 urteetan jaiotakoek hartuko dute parte, eta euren gurasoekin bilera hilaren 23an izango da.
- Udan Jolas ekimenean 2002 eta 2001ean jaiotakoek hartuko dute parte, eta euren gurasoen bilera ekainaren 24an izango da.
- Udan Mugin, berriz, 2000 eta 1999an jaiotako haurrek hartuko dute parte, eta euren gurasoekin bilera ekainaren 25ean, ostegunean, izango da.
- Udan Alain 10-12 urtekoek hartuko dute parte, eta euren gurasoen bilera ekainaren 25ean izango da, ostegunean, 18:30an, bai euskaraz eta bai gazteleraz.
- Udabenturan parte hartuko duten 12-16 urte arteko gazteek eskutitzez jasoko dute informazio guztia.

Azpeitiko geltokia Ordesen



Galiziako lan talde bat bixitan izan da trenaren museoa

a Coruña (Galizia) Ordes herrian Azpeitiko tren geltokiaren bikia dago. Berdin-berdina da eraikina, baina hangoa zahartuta dago. Eraberritzekotan dira Ordeseko arduradunak, eta lanak nola egin hobeto jakiteko Azpeitian izan dira bertako geltokia ezagutzen. Ordeseko agintariak eta geltokia berritzeaz arduratuko diren eskolako kideak izan ziren bisitan, hemen lanak nola egin ziren ezagutu asmoz. Ramon Rubial enplegu tailerreko ikasleek egingo dituzte berritze lanak, eta adi jarraitu zuten Azpeitira egindako bixita.

Izan ere, Ordeseko agintariek ere museo bihurtu nahi dute euren tren geltokia, eta Azpeitian halatsu eginda dagoela ikusita, bertako eredia jarraitzea erabaki dute. Trenaren Euskal Museoko eta Udaleko ordezkariekin egin zuten museorako bisita, eta tartean bi herriak senidetzeko asmoa ere agertu zen. Azpeitiko geltokia, Urolako trenbidearen gainerako guztia bezala, 1926ko otsailaren 22an inauguratu zen. Geltokiaren eraikina Ramon Cortazarrek diseinatu zuen, eta herriko hainbat dorretxetan eta jauregitan dago inspiraturik.

Dantzan dator uda

Ekainaren 27an hasiko da Maiatza Dantzan, egitarau luze eta anitzarekin.

dantzan ariko da Azpeitia datorren hilabetean. Ekainaren 27tik uztailaren 31ra, asteburuero egongo da dantza emanaldia bat herrian, eta ez nolanahikoa, aurten inoiz baino indartsu eta anitzagoa baitator Azpeitia Dantzan. Dantza folklorikoak, akrobatikoak, modernoak... espezialidade askotako emanaldiak egongo dira ikusgai, eta dantza ez ezik, atzerriko herrialde batzuetako kultura hobeto ezagutzeko parada ere egongo da.

Egitarau oparoa izango da eta guztiak dira ikusteko moduko emanaldiak, baina badira batzuk aurtengo Azpeitia Dantzanerako bereziak eta berezituak. Sahatsa taldeak eta Peruko Cosandaneak elkarrekin egingo duten emanaldia izango da horietako bat. Bertako eta Andeetako folklorea elkarren ondoan, elkarri begira eta elkar agurtuz ikusteko modua izango da, aldi berean egingo duten emanaldian.

Ekialdeko kultura sakonago ezagutzeko aukera eskainiko digu, bestalde, Sri Lanakako Sama taldeak. Izan ere, euren dantza eta musika emanaldiaz gain, Sri Lankako kulturaren oso esanguratsuak diren elementuen erakustaldia ere egingo dute, dragoi eta bestelako elementu mitikoekin.

Itsasi dantza taldeak ere ekitaldi bizi eta freskoa eskainiko du. Euskal Herriko txoko guztietako dantzak taularatzeaz gain, Mikel Laboari omenalditxo bat ere egingo dio herriko dantza taldeak, musikariaren Baga Biga abestiaren oinarritutako koreografi bereziarekin.

Fandatrasurenuzot dantza emanaldiarekin hasiko da aurten Maiatza Dantzan, eta aipatu emanaldiekin batera, Acroindar taldearen dantza akrobatikoek eta Saloiko dantza emanaldiak osatuko dute egitarau osoa.



EGITARAUA

FANDATRASURENUSOT DANTZA emanaldia

Landaberriko Antzerki –Dantza tailerra
Zuzendaria: Maider Oiarzabal
Ekainaren 27a, larunbata
Arratsaldeko 20:00ak
Enparantza Nagusia

ACROINDAR

Dantza Akrobatikoaren emanaldia

Zuzendaria: Acroindar
Uztailaren 4a, larunbata
Gaueko 22:00ak
Enparantza Nagusia

SALOIKO DANTZAK

Zuzendaria: Jose M^a Orbegozo
Uztailaren 12a, igandea
Arratsaldeko 20:00ak
Enparantza Nagusia

ITSASI DANTZA TALDEA

Zuzendaria: Ainara Bidal eta Maite Maiz
Uztailaren 18a, larunbata
Gaueko 22:00ak
Izarraitz pilotalekua

PERUKO COSANDANEA TALDEA eta SAHATSA TALDEAREN Ikuskizuna

Peruko Zuzendaria: Jose Catacora
Sahatsa taldearen zuzendaria: Juan Luis Lizabe
Uztailaren 24a, ostirala
Gaueko 22:00ak
Enparantza Nagusia

SRI LANKAKO SAMA DANTZA TALDEA

Zuzendaria: Ajith Amarasiri
Uztailaren 31, ostirala
Gaueko 23:30
Olazko Amaren Plaza

“Sexuen heziketa egitasmoak izugarritzko arrakasta izan du”



Ikasturte hasieran abiatu zuen Parekidetasun Sailak sexuen heziketarako programa. Gaur bertan amaituko da, Porrotx eta Mari Mototxen emanaldiarekin. Formazio ikastaroak, aholkularitza zerbitzua, ekintza osagarriak... zabala izan da oso proiektuaren eskaintza, eta oso gustura daude izandako arrakastarekin Parekidetasun Sailean. Hala dio Edurne Aranbarri sail horretako teknikariak.

1. Ekintza osagarriak antolatu dituzue ikasturtea amaitzeko. Zein helbururekin?

Ekintza osagarrien atala ikasturte hasieran martxan jarri genuen proiektu batean kokatzen da, sexuen hezkuntza proiektuaren barruan, hain zuzen. Lehenengo atala ikastetxe guztietan eta haurtzaindegian eskaini dugun formazio eta aholkularitzan oinarritzen da. Bigarren atalean herriko sektore ezberdinei formazioa eskaini diegu (3. adina. emakume, aisialdiko begirale, gizon eta gazteei). Proiektua borobiltzeko herritar guztiei irekiak egongo ziren ekintzak antolatu nahi genituen, era ludiko batean sexualitatearen gaia landu eta jendarteratzeko, bertso saioa, antzerkia, pailazo emanaldi eta abarrekin.

2. Ekintza “ludikoak” aukeratu dituzue. Horiek ere sexuan hezteko balio dute?

Bai. Herritarrek sentsibilizatzeko era hobeagorik ez dago. Ondo pasatuz gauzak ikasi eta elkartrukatzeko aukera eskaini dugu. Ekintza bakoitzean gaia bakoitzak bere erara landu du. Bertsolari gazteek Estitxu Arozenak zuzenduta sexualitateari buruzko bertsoak eskaini dizkigute. Ohiulari Clown antzerki taldeko Virginia Imazek aldiz, umorea erabili du gaia lantzeko. Dantza afrikarren bitartez gorputza landu dugu, eta azkenik, Porrotx eta Mari Mototsen bihurrikeri eta jolasen bitartez guztiok gozatzeko aukera izango dugu.

3. Eta zergatik aukeratu dituzu ekimen zehatz horiek?

Harreman pertsonala izateaz gain, beraiek egiten duten lana gertutik ezagutzen dugu eta erabat interesgarria iruditu zitzaigun beraiekin lan egitea. Ezin dugu aipatu gabe utzi beraien agendak beteta izanda ere, nolako esfortzua egin duten tarte bat topatu eta Azpeitira etortzeko. Guretzat ohore handia da guztiek gure egitasmoan parte hartzea.

4. Sexuen heziketa egitasmoaren ikasturtea amaitu da. Zer moduzko balorazioa egiten duzue? Datorren urtean ere egingo da?

Balorazioak ezin du hobeagoa izan. Irailean jarri genuen martxan proiektua eta ez genekien herritarrek nola erantzun zuten. Ikastetxeekin egun hauetan ari gara balorazio zehatzak egiten eta izugarria da proiektuak izan duen arrakasta, bai guraso, ikasle eta irakasleen artean. Herriko sektoreei eskainitako formazio saioek ere herritarren aldetik erantzun ona izan dute, eta ekintza osagarrietan ere jende asko gerturatu da saioez gozatzera. Gazte informazio bulegoan kokatu dugun sexu aholkularitza zerbitzua ere hasi dira gazteak hurbiltzen, nahiz eta bertara joaten ez ausartu, internet bidezko zerbitzua erabiltzen hasi dira. Hain balorazio ona izanda, datorren ikasturtean proiektuarekin jarraituko dugu, eta gainera aurtun identifikatu ditugun beharrei ere (kirola aisialdia, hezkuntza berezia, e.a.) erantzuteko asmoa dugu.

agendaekaina



EKAINA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28



22, ostirala

ASTEBURU MUSIKALA
III. PIANO BAT BERTSOTAN

Lekua: Saski Baloiko taberna

Ordua: 22:30ean

Musika eskolako irakasleen kontzertua

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 19:30ean

23, larunbata

ELKARTASUN EGUNA

ELKARTASUN KROSA

DVD EMANALDIA

17:00: *El hijo de rambo*

22:00: *Cus cus*

Lekua: Betharram Aretoa

24, igandea

XVIII. HERRI MAIALAKO

AMUARRAIN TXAPELKETA

Tokia: urola ibaia

Ordua: 9:00etatik – 12:00etara

Kategoria: alebinak eta infantilak

Izenematea: Larrañaga kirolak denda

LAGUN ONAK M.B.

Txalintxo eguna

- Irteera goizeko 9:00etan plazatik

- 12:00etan Meza nagusia

- Salda eta hamaiketakoa

- Egun guztian zehar trikitilariak eta txistulariak

- Umeentzako jolasak goiz eta arratsalde

ASTEBURU MUSIKALA

Gitarra taldea eta Soinu-joleen emanaldia

Lekua: Enparantza Nagusia

Ordua: 13:00

DVD EMANALDIA

17:00: *El hijo de rambo*

19:30: *Cus cus*

Lekua: Betharram Aretoa

25tik 30era

LAGUN ONAK M.B.

(Aritz Odriozolaren omenez)

- 4 proiektio emanaldi (astearte, asteazkena

eta ostegunean Enparan Dorretxean), ostiralean

berri plaza arkupetan, gaueko 22:00etan

- larunbatean (maiatzak 30) herriko

plazan gaztetxoentzat

rokodromoa, goiz-arratsalde

- ostiral eta larunbatean (maiatzak

29 eta 30) III. Boulder Txapelketa he-

rrikoa gaztetxean, goiz- arratsalde

26, astearte

LAGUN ONAK M.B.

Proiektio emanaldia

Patricia Viscarret "Gu, Pirineoetatik Denalira"

Lekua: Enparan Dorretxean

Ordua: 20:30ean

27, asteazkena

LAGUN ONAK M.B.

Proiektio emanaldia Asier Aranzabal eta

Mila Gallastegi "Iran: topikoei ihes egiten

dien bidaia bat Damaband (5761 m)"

Lekua: Enparan Dorretxean

Ordua: 20:30ean

29, ostirala

LAGUN ONAK M.B.

Proiektio emanaldia: Mendi astearen barnean

Lekua: Udaletxeko Arkupetan

Ordua: 22:00

ANTZERKIA

EMAKUME TAILERRAK

Izenburua: Autobusan zain II

Ordua: 19:30

Lekua: Betharram Aretoa

30, larunbata

ASTEBURU MUSIKALA

EZTAKE ETA ZE EZATEK?

Lekua: Udaletxeko Arkupetan

Ordua: 22:30ean

DVD EMANALDIA

17:00: HAMMY: EL HAMSTER

22:00: REVOLUTIONARY ROAD

Lekua: Betharram Aretoa

31, igandea

AIZKORA DESAFIOA

IOSU AIZPURU ZEBERIO & IOSEBA OTAEGI

Ordua: 12:30ean

Lekua: Zezen plaza

LAGUN ONAK M.B.

Xoxoteko eguna

- Irteera goizeko 9:00etan Enparantza Nasusitik eta

nahi duenak Attolara autobuses joan eta bertatik

- 12:00etan Meza nagusia

- 12:45 hildako mendizaleen alde lore eskaintza

- Domina banaketa. Aterpeen zian-

dari izandakoei emanaldia

- Egun guztian zehar trikitilariak eta bertsolariak

- Umeentzako jolasak

- Herri kirolak

DVD EMANALDIA

17:00: HAMMY: El hamster

19:30: Revolutionary road

Lekua: Betharram Aretoa

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6

Ekainaren 24, eta 30an, eta uztailaren 6, 11, 12, 17,

23, 25, 26 eta 29an.

Telefonoa: 943 81 59 74

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2

Ekainaren 22, 27 eta 28an, eta uztailaren 3, 9, 15,

20, 21 eta 27an.

Telefonoa: 943 81 13 50

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3

Ekainaren 23 eta 29an, eta uztailaren 4, 5, 10, 16,

22, 28 eta 31n.

Telefonoa: 943 81 19 49

EIZAGIRRE (orain arteko Garcia de Miguel).

Enparan 29

Ekainaren 25ean, eta uztailaren 1, 7, 13, 18, 19, 24,

eta 30ean.

Telefonoa: 943 81 12 74

JACOME. Garmendi 21

Ekainaren 28an eta uztailaren 2, 8 eta 14an.

Telefonoa: 943 08 02 58

